

IZIAR.¹



Ave maris stella.

I.

¡Zér toki alaya, polita, charmangarriya dan, Iziar-ko eleiza sonatuba dagon lekuba!

Anduz-mendiko aldapa lasayian alchatzenda eleizacho-au, estalirik bere atzia Lizarretako mendi tontorrak, zeñak zabaltzen dituan bere aurrian bi beso luze bezela, laztandubaz beren ayetan Kantabriako itsaso zabal neurrigabea.

Andik ikustenda itsaso aunditasunez bete au etortzen bere oñetara; batzuetan kolera aundiyan arrotasunez beterik, alchatzen ditubela odoyetaraño olatu aundi afarrez bordatuak, lertzeko azkenik deadar aundiyaekiñ arroka gogorren kontra; bestietan umiltasunez beterik chirristatzen leun leuna bere oñeko ondar urreztatuan, iltzeko laster isil-isilla barkaziyua eskatubaz.

Eta itsaso ontan urrekintzan arrifñak egoten diran moduban, ikusten dira lekuban lekuban chalupa polit zapi churiyakiñ apainduak. ¡Ayetan dabilta Euskal-erriko arrantzale animosua, itsasgizon famatuak!

Geldi-geldi ya dagonian itsaso au eta eguzkiyak goi-goitikan bere urrezko ille dizdizariak, ispillu batian bezela ikusten dituenean, orduban gizon ayek alaitasunez beterik beren farrezko arpegiyekiñ egortzen dute ariyo bat biotz-biotzetik.

Gabian berriz illargiyak zillarreztatzen dituenean ur denak, ez zayote iñola ere aztuko beren betiko agurra,

Eta odoyak beren kopeta beltzak antzestatzen dituztenean, itsaso zakar arrunkaz betean, eta aize gogorak zatitu bitartian chalupa ariñ ayek, estuasun aundiyanian arkiturikan, otoitz bat egiten. dute leku ontara begira, libra ditezen len-bai-len tranze estu artatikan.

¿zér arkitzen da hada leku onetan?

(1) Leyenda premiada con *accèsit* en los Juegos florales euskaros celebrados en esta Ciudad en 1889. (Véase pág. 564).

Emen dago Zeru eta lurreko Erregiña bere deiya ederrenetako batekiñ ezagutzen dana.

Itsasoko izarra.

Maris stella.

II.

Noizdikan, eta nola dagon leku ontan itsasoko Izarra deitzen diogun Birjiña maitagarri-au esango det oraiñ itz guchitan.

Denbora artan orain Iziar deitzen diogun lekuban; ez ziran arkitzen baserri banaka batzuek besterik, zabalduak artaldeko arkumien gisa, mendiko gora bera guztietan.

Neskacha gazte bat, birtutez betea eta toki artako jende guztiak maitatzen zutena bere ontasunaz, zijuan egun batez oraiñ eleiza dagon toki artan; eta ¡zér ez zan izango arren arritasuna billatu zubenian ez bat eta ez bi, arantza batzuen gañian arrosa eder baten gisan, Birjiña Maria-ren imajiña bat guztiz ederra, zubelarik bere eskuetan zoragarrizko Ume eder bat!

Zér esan ez zekiyela gelditu zan lendabizian, bañan noizbait ere galdetu zion errespetu arndiarekiñ zéiñ zan eta zér nai zuben.

Orduban irikirik Imajiñ-arrek bere ezpaiñ chit garbiyak eran-zun ziyon:

«Ni naiz aingeru guztien Erregiña, ni naiz Birjiña Mariya; eta nere borondatia da, emen nere Semechuaikiñ zuben artian egotia; ortarako nai nuke zubek toki ontan Eleizacho bat egitia. Konta zayezu hada zure erritarrai nere erregu au, egin dediyen nik desio detan bezela.»

Izanagatik erritarrak chit konfianza aundiya neskach-ontan, aiñ zan azaldezgarria onek kontatzen zubena, non etziyoten chinistu lendabizikoan, eta Aldazabal kondairazaleak diyo, nai izandu zutela guztiyak beren begiz ikusi.

Juan ziran liada, eta ez bakarrik ikusi zuten neskachak esan zuben Imajiña eder ura, baizik askok entzun zituzten bere abo doatutik len esantako itz berak.

Orduban bear asi ziran kunplitzen Birjiña-ren erregu doaintia; bañan nola agertutako lekua zan desberdiña, pensatu zuten beste lur zuzenagoko batean, Zabaleta izena zuenean, egitia.

Asi ziran bada eramaten ara, arri, zura eta gañerako gauzak bañan ¡zér gauza arrigarriya! urrengo goizian arkitu-zituzten agertze doaintia izan zan lekuan.

Zér esan ez zekitela gelditu ziran au ikusterakoan, Eraman

zituzten berriz ere beren gauzak eta berriz biurtu ziran lengo lekura, bañan ñola izan zitezien! Ezin zuten asmatu eta azkenik ipiñi zituzten lagun batzuek kontu egin zezaten gabaz.

Orduban ikusi-zuten ageriki nola zerutik josten ziran aingeru churi, lumazko ego politdunak, zeñek beren esku doaintietan biur-tzen zituzten arri eta egurrak agertutako tokira. Birjiñak esan zuben an naizubela Eleiza, eta egin bearda bere borondatia.

Anchen egin zuten eleizacho polit bat, eta an izan zuben bere lenbiziko tronua itsasoko Izar doayez beteak.

Bañan euskaldunak zioten maitasunarentzat ez zan asko eleiza ura, eta egin zuten aguro beste bat aundiyagoa eta apainduagoa; eta azkenik milla eta irureungarren urtian, doainkiro gaurko egu-nian ikusten deguna.

Ango aldare nagusiyan dago gure Ama kupidakor au eta beñ bakarrik atera izandu da andik: Deba-leo erriyan izanik eritasun aundi bat eraman zuten ara lau apaizen artian, eta kalietan sartu orduko alde egin zuben doakabetasun izugarri arrek.

III.

¿Nórk egin zuben Imajiña charmant-au? Esaera da, aingeruen lana dala, eta egiyazki esan liteke. Iñork ez daki zerekin egiña dan; arpegiya du belch antzekoa, eta aiñ ondo egiña da, non zoratzen du begiratzia eguzki eder artara. Buruban du koru bat erregeen erara, eta len esan dan bezela, eskuetan Ume chit polit bat.

¿Nóiz agertu zan? Eziñ esan liteke; zergatik kondairak ez dute segurantzi aundirik ematen, bañan jakiña da, oso denbora asko dala, eta esan liteke zazpireun eta amalau garren urterako agertua zala. Ordutikan izan diote naitasun aundi au euskaldunak, eta Bir-jiña kupidati-onek egin dizkate mesede asko eta aundiyak, emen eziñ kontalitezken moduban bukatu biar bada izkribu au.

Denbora batian, gerrako ontziyak bere aurrian pasatzian, geldit-urik egiten ziyoten beren agurmena sutunpa edo kañonazuak botatuaz, bañan gaurko egunian pasatzen dira kasorik egin gabe.

Alare gure euskaldunak, dirala arrantzale, dirala nekazariyak, denak, guztiyak, ez dira beñere pasako (ez dute biar ere) sutunpak baño geyago balio duen agurra egin gabe.

Nik ere ayekiñ batian egiten diot nere lan au bukatzian:

¡Agur Iziaeko Birjiña maitea!

¡Agur Itsasoko Izarra!

¡Ave Maris Stella!

TORIBIO ALZAGA.